



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko ekainaren 28a

96. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege proiektua. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen titulua eta artikulua batzuk aldatzen dituen. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

—Foru Legea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Gobernu zentrala eta Gorte Nagusiak premiatzen dira indargabetu ditzaten Lan-merkatua erreformatzeko premiazko neurriei buruzko Legea, Konstituzioaren 135. artikulua aldatzea eta gastu-kontrolerako neurriak ezartze aldera onetsitako beste hainbat lege. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontratazio publikoaren jarraipenerako talde bat sor dezan, kontratu publikoak behar bezala betetzen direla zaintzeko. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eskatzen du, behar adinako emariarekin eta tamainarekin, eta lehenengo fasea eta horren handitzea garatu izan diren baldintza beretan. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sustapen Ministerioarekin eta ADIFekin hitzarmen bat sina dezan, helburu izanen duena egin beharreko obrak egitea Mediterraneoetik Kantauri itsasorainoko trenbide-korridorearen Nafarroako tartean, nazioarteko estandarrekin, nazioarteko zabalera bide bikoitzarekin eta bidaiari nahiz salgaietarako erabiliko dena. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege proiektua.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2017ko irailaren 30eko eguerdiko hamabiak arte** luza-tzea. Aipatu foru lege proiektua 2017ko apirilaren

26ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-lean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldiz-kari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen titulua eta artikulua batzuk aldatzen dituena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko ekainaren 22an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: “Foru Legea, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen titulua eta artikulua batzuk aldatzen dituena”.

Foru Hobekuntzaren 20.2 artikuluari jarraikiz, Foru Legea erabateko gehiengoz onetsi da, proiektuaren osotasunaren gaineko azken bozketa batean.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2017ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen titulua eta artikulua batzuk aldatzen dituena

ATARIKOA

Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak Nafarroako hizkuntza eremu bakoitza osatzen zuten udalerririk zehaztu zituen, garai hartako legegileak bidezkotzat jo zituen irizpide soziolinguistikoen arabera. Otsailaren 23ko 2/2010 Foru Legeak aldatu zuen banaketa hori, arrazoi berberak tarteko.

Hogeita hamar urte baino gehiago pasatu dira arau hura onetsi zenetik, eta zazpi, azkenekoz aldatu zenetik; eta, agerikoa denez, errealitate soziolinguistikoak Nafarroan izandako bilakaerak botere publikoen erantzuna eskatzen du.

Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko eremu euskalduna eta eremu mistoa osatzen dituzten udalerrien zerrendetan eginiko aldaketak egiteko, udal-autonomiaren eta herritarren hizkuntza eskubideen errespetuaren printzipioak hartu

dira oinarri gisa. Hala, udal horien osoko bilkurek adierazitako eskaerak aintzat hartuta, Atetz eremu euskalduneari sartuko da, eta orain arte eremu ez euskaldunekoak ziren 44 udalerririk eremu mistoan sartuko dira.

Zabalkunde horretarako arrazoi dira, halaber, euskararen aitortza eta babes berezia eta Nafarroak berer duen hizkuntza honen garapena sustatzeko helburua.

Bestalde, gaztelaniatzeko testuan, “vascuence” adierazpidearen ordean “eusquera” erabiliko da, azken horren erabilera zabalduago dagoelako era gutzietako erakundeetan eta Nafarroako gizartean. Hala berresten du Europako Kontseiluak, baita Erregio edo gutxiengoaren hizkuntzen Europako Kartaren jarraipena egiten duen Adituen Batzordeak ere, “eusquera” terminoa erabiltzen baitute egiten dituzten txostenetan.

Azkenik, Nafarroako toki entitateei eskumena aitortzen zaie udal ordenantzen bidez beren mugarteetan euskararen erabilera arautzeko edo sustatzeko, kontuan hartu gabe zein eremutan dauden, foru legearen interpretazio murriztaileen bidez udalen ahalmen hori ez mugatzearen.

1. artikulua.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen izenburua aldatzen da (gaztelaniatzeko testuan) eta “Ley Foral del Euskera” deituko dela ezartzen da.

2. artikulua.

Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5. artikuluko 1. apartatuko a) letra aldatzen da, eta honela izanen da hemendik aurrera:

“a) Eremu euskalduna, ondoko udalerririk osatua: Abaurregaina, Abaurrepea, Altsasu, Anue, Araitz, Arakil, Arano, Arantza, Arbizu, Areso, Aria, Aribe, Arruazu, Atetz, Auritz, Bakaiku, Basaburua, Baztan, Beintza-Labaien, Bera, Bertizarana,

Betelu, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ergoiena, Erro, Esteribar, Etxalar, Etxarri Aranatz, Ezkurra, Garaioa, Garralda, Goizueta, Hiriberri, Igantzi, Imotz, Irañeta, Irurtzun, Ituren, Iturmendi, Lakuntza, Lantz, Larraun, Leitza, Lekunberri, Lesaka, Luzaide, Oiz, Olazti, Orbaizeta, Orbara, Orreaga, Saldias, Sunbilla, Uharte Arakil, Ultzama, Urdazubi, Urdiain, Urroz, Ziordia, Zubieta eta Zugarramurdi”

3. artikulua.

Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5. artikuluko 1. apartatuko b) letra aldatzen da, eta honela izanen da hemendik aurrera:

“b) Eremu mistoa, ondoko udalerriek osatua: Abaigar, Abartzuza, Adios, Agoitz, Allin, Amekoabarrena, Antsoain, Antzin, Añorbe, Aranaratxe, Aranguren, Arellano, Artazu, Artzibar, Atarrabia, Barañain, Bargota, Beraskoain, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Bidankoze, Bidaurreta, Biurrun-Olkotz, Burgi, Burlata, Cabredo, Deierrri, Deikaztelu, Eguesibar, Eneritz, Erriberri, Erronkari, Espartza Zaraitzu, Etxarri, Etxauri, Eulate, Ezkabarte, Ezkaroze, Galar Zendea, Galoze, Garde, Gares, Garinoain, Gesalatz, Goñerri, Gorza, Iruña, Itza Zendea, Itzagaondoa, Itzaltzu, Izaba, Jaitz, Jaurrieta, Larragoa, Leotz, Lerga, Lezaun, Lizarra, Lizoain-Arriasoiti, Longida, Mendigorria, Metauten, Mirafuentes, Murieta, Nazar, Obanos, Odieta, Oibar, Olaibar, Ollaran, Oltza Zendea, Orkoien, Orontze, Orotz Betelu, Oteitza, Otsagabia, Puiu, Sartze, Tafalla, Tebas-Muru Artederreta, Tirapu, Txulapain, Uharte, Untzue, Urraulbeiti, Urrotz-Hiria, Urzainki, Uxue, Uztarroze, Villatuerta, Zabaltza, Zangoza, Zirauki, Ziritza, Zizur Zendea, Zizur Nagusia eta Zuñiga.

Noain Elortzibarko udalerria automatikoki sartzan ahalko da eremu mistora, baldin eta toki kor-

porazio horretako udalak aurretiaz eta gehiengo osoz osoko bilkuran hartzen badu horretarako erabakia. Erabaki horrek eragingarritasun osoa izan dezan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da”

4. artikulua.

Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen xedapen gehigarri bakarra aurrerantzean lehen xedapen gehigarria izanen da.

5. artikulua.

Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat eransten zaio, testu hau izanen duena:

“Bigarren xedapen gehigarria.

Nafarroako toki entitateek, beren eskumenen esparruan, ordenantzak onesten ahalko dituzte, beren mugartean euskararen erabilera arautu edo sustatzeko, betiere foru lege honetan adierazitakoren aurkako xedapenik ezarri gabe”

Xedapen gehigarria.

Abenduaren 15eko 18/1986 foru Legearen gaztelaniazko testu osoan “vascuence” hitzaren ordez “euskera” hitza erabiliko da.

Euskararen Foru Legea aplikatzearen ondorioz garatu edo xedatzen diren xedapen eta egintza guztien gaztelaniazko testua izendapen berri horretara egokituko da, eta, hala, “euskera” izendapen berria erabiliko da “vascuence” hitzaren ordez.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko ekainaren 22an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea hein batean aldatzen duena".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2017ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea hein batean aldatzen duena

ATARIKOA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeak muntako aldaketa bat egiten du patent box izeneko araubideari dagokionez; hau da, aktibo ukiezin jakin batzuetatik heldu diren errentak murrizteari dagokionez.

Zehazki, foru lege horrek indargabetu egiten du, 2016ko ekainaren 30etik aitzinako ondorioekin, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legean jasotzen den patent box araubidea, eta beste araubide bat ezartzen du egun horretatik aurrera, horrela betetze aldera BEPS Ekintza Planeko 5. ekintzan jasotako aginduak eta arlo horretan ELGEko Jardun Fiskal Kaltetgarrien Foroak nahiz ECOFINeko enpresen Zerga-jokabide Kodearen Taldeak hartutako erabakiak. Lotura aldatuaren edo jarduera funtsezkoaren ("Modified Nexus approach") estandar definituari segitzen dio araubide berriak, zeinaren arabera patent boxaren araubideko mozkin fiskala kalkulatu behar baita lotura zuzena ezarriz mozkin fiskala duen diru-sarreraren eta diru-sarrera hori lortzen laguntzen duen gastuaren artean.

Patent boxaren araubide berria ezarri bidena-bar, abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeko hamargarren xedapen iragankorrak, ELGEren eta ECOFINen jarraibideekin bat, aldi baterako araubide bat ezartzen du 2016ko ekainaren 30a baino lehen formalizatutako jabetza industrialaren edo intelektualaren ustiaketarako edo erabilerarako eskubidearen lagapenatarako. Aldi baterako arau-

bide horrekin bat, 2021eko ekainaren 30era bitarte aplikatu ahal izanen da 24/1996 Foru Legearen 37. artikuluan ezarritako araubidea, 2016ko ekainaren 30ean indarrean zen idazketarekin.

Orain dela gutxi ELGEren eta ECOFINen erabaki eta jarraibide berriak heldu dira, eta horien arabera aldatu beharra dago Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen hamargarren xedapen iragankorreko araubide iragankorra, halako moduan non 2016ko abenduaren 31ra bitarte soilik utziko baita aplikatzen entitate lotuei 2016ko urtarrilaren 1etik aitzina erositako jabetza intelektualeko edo industrialeko aktibo jakin batzuen lagapenaren kasuan.

Xede horrekin aldatzen da, hain zuzen ere, abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeko hamargarren xedapen iragankorra: ekiditea 2016ko ekainaren 30a baino lehenagoko sei hilabeteen barruan erositako aktibo batzuei araubide iragankor onurgarria aplikatu ahal izatea. Kontuan har bedi entitate lotuei egindakoa izan behar duela erosketak; alegia, baldintza normaletan ezin aplikatzeko izanen litzatekeen araubide iragankor bat baliatzeko xede bakarrarekin egindakoa, seguruenik. Eta bestalde zehazten da araubide iragankorra aplikatzeko debekua egonen dela, salbu eta aktiboen eskualdaketa arrazoi ekonomiko baliodunen kariaz egin baldin bada eta eskualdatzaileak araubide iragankor hau nahiz gisa bereko beste bat ere aplikatzeko modua izan badu.

Lege-aldaketa hau berehala egin beharra dagoenez gero –izan ere, 2016ko zergaldiari aplikatzeko da, eta zergaldi horretako autolikidazio-epea uztaileko azken egunetan bukatuko da oro har–, foru lege proposamen hau irakurketa bakarrean izapidetzea nahi da, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 158.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Hartara, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen hamargarren xedapen iragankorra aldatzen da, 2016ko uztailearen 1etik aitzinako ondorioekin.

Artikulu bakarra. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea.

Hamargarren xedapen iragankorra aldatzea. 2016ko uztailearen 1etik aurrera izanen du eragina.

“Hamargarren xedapen iragankorra. Jabetza industrialaren edo intelektualaren ustia ketarengatiko murriztapenaren araubide iragankorra.

Entitatearen jabetza industrialaren edo intelektualaren ustia ketarako edo erabilerarako eskubidearen lagapenaren kasuan, 2016ko ekainaren 30a bitartekoak badira, erabaki daiteke 2021eko ekainaren 30era arte aplikatzea Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 37. artikuluan ezarritako araubidea, 2016ko ekainaren 30ean indarra duen testuaren arabera.

Aukera hori baliatuko da 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldiari dagokion sozietateen gaineko zergaren aitorpena egitean.

Baldin eta lagapenaren xede den jabetza intelektual edo industrialak 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera erosi bazaie entitate lotuei, araubide iragankor hau 2016ko abenduaren 31ra bitarte bakarrik aplikatu ahal izanen da, salbu eta eskualdake-ta arrazoi ekonomiko baliiodunen kariaz egin baldin bada eta eskualdatzaileak ere aldi baterako araubide hau nahiz gisa bereko beste bat aplikatzeko modua izan badu.”

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Gobernu zentrala eta Gorte Nagusiak premiatzen dira indargabetu ditzaten Lan-merkatua erreformatzeko premiazko neurriei buruzko Legea, Konstituzioaren 135. artikulua aldaketa eta gastu-kontrolerako neurriak ezartze aldera onetsitako beste hainbat lege.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko ekainaren 22an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Gobernu zentrala eta Gorte Nagusiak premiatzen dira indargabetu ditzaten Lan-merkatua erreformatzeko premiazko neurriei buruzko Legea, Konstituzioaren 135. artikulua aldaketa eta gastu-kontrolerako neurriak ezartze aldera onetsitako beste hainbat lege”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentralari eta Gorte Nagusiei exijitzen die indargabetu ditzaten:

1. 3/2012 Legea, uztailaren 6koa, lan-merkatua erreformatzeko premiazko neurriei buruzkoa.

2. Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua aldaketa, 2011ko irailaren 27koa.

3. Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraukortasunari buruzkoa.

4. 14/2012 Errege Lege Dekretua, apirilaren 20koa, hezkuntzaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko premiazko neurriei buruzkoa.

5. 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzkoa.

6. 16/2012 Errege Lege Dekretua, apirilaren 20koa, Osasun Sistema Nazionalaren iraukortasuna bermatzeko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko premiazko neurriei buruzkoa”.

Iruñean, 2017ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontratazio publikoaren jarraipenerako talde bat sor dezan, kontratu publikoak behar bezala betetzen direla zaintzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko ekainaren 22an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontratazio publikoaren jarraipenerako talde bat sor dezan, kontratu publikoak behar bezala betetzen direla zaintzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontratazio publikoaren jarraitpenerako talde bat sor dezan, gizarte-eragileen eta Administrazioaren parte-hartzearekin, xede izanen duena zaintzea Nafarroako Gobernuak onetsitako kontratu publikoak behar bezala betetzen direla eta bermatzea baldintza-orrietan jasotako

gizarte-klausulen arabekoak direla azpikontratutako enpresetan diharduten langileen lanbaldintzak.”

Iruñean, 2017ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eskatzen du, behar adinako emariarekin eta tamainarekin, eta lehenengo fasea eta horren handitzea garatu izan diren baldintza beretan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

José Javier Esparza Abaurrea jaunak honako mozio hau aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eskatzen du, behar adinako emariarekin eta tamainarekin, eta lehenengo fasea eta horren handitzea garatu izan diren baldintza beretan.”

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2017ko ekainaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2017ko ekainaren 20ko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sustapen Ministerioarekin eta ADIFekin hitzarmen bat sina dezan, helburu izan den duena egin beharreko obrak egitea Mediterraneoetik Kantauri itsasorainoko trenbide-korridorearen Nafarroako tartean, nazioarteko estandarrekin, nazioarteko zabaleradun bide bikoitzarekin eta bidaiari nahiz salgaietarako erabiliko dena.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Carlos García Adanero jaunak honako mozio hau aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sustapen Ministerioarekin eta ADIFekin hitzarmen bat sina dezan, helburu izan den duena egin beharreko obrak egitea Mediterraneoetik Kantauri itsasorainoko trenbide-korridorearen Nafarroako tartean, nazioarteko estandarrekin, nazioarteko zabaleradun bide bikoitzarekin eta bidaiari nahiz salgaietarako erabiliko dena.”

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2017ko ekainaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2017ko ekainaren 20ko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza